



**Andoingo  
Udala**

**Andoingo Udaleko herritarren  
Arretarako Zerbitzua arautzen duen  
Udal Ordenantza**

**Ordenanza Municipal Reguladora del  
Servicio de Atención al Ciudadano del  
Ayuntamiento de Andoain**

**ZIOEN AZALPENA.**

Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Jardubide Orokorrari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak hiritarrek jardun administratiboarekiko dituzten gutxieneko bermeak ezartzen ditu, eta bere ekarpenik aldekoena hiritarrek beraiek Herri Administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak ezarri izana da. Eskubide horien artean nabarmentzen dira informazio eta orientabidea jasotzeari dagozkienak, norik bere eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko bidea errazteari dagokiona eta herri zerbitzuen jardunean atzerapenak edo irregulartasunak gertatu izanagatik iradokizunak edo kexak aurkezteari buruzkoa.

Herri zerbitzuak ematerakoan gauza litezkeen hobekuntzak eragin berezia dute tokiko administrazioan, hori baita hiritarrak bere nahiak, bere beharrak eta abar duen lehenengo mailadia. Horrek bat dakar tokiko administrazioek hiritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak hobetzeko eta zabaltzeko behar garbia izatea

Aldi berean informazioaren teknologia berrien garapenak eta gizarte digitalak egin duen goraldiak ahalbidetu dute administrazioaren eta administratuen arteko harremanean aldaketak ere errazten dituzten plataforma teknologikoak eratzea, nola baita administrazioaren baitako antolakuntzaren kulturen aldaketak eragitea.

Hala eta guztiz ere, benetan funtsekoa dena jokabideetan aldaketak eragitea da eta, era berean, berrikuntzarako ahalmena suspertzea. Horrela baino ezingo dugu eraiki azken hartzaile gisa hiritarrarengan pentsatuz eraikitako administrazioa, hobeto funtzionatuko duena eta kostu eraginkorrago batekin. Hiritzarra bezerotzat jotzea da administrazioak modernizatzeke hartu duen ardatz nagusia, baina horretan ere laguntzarik eman dute egoerari loturiko beste inguruabar batzuek, horien artean gizartean gertatu den aldaketak eta, garrantzi handia izan duen batek, informazioaren teknologiek gora oso nabarmen egin izanak.

Gertakari hauetatik abiatuz eta horien zabalkundea errazteko xedez, beharrezkoa da gure asmoetara ekartzea herritarra artatuko duen informazio eta arreta

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.**

La Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, determina las garantías mínimas de los ciudadanos respecto a la actividad administrativa, siendo su aportación más positiva la consagración de los derechos de aquéllos en sus relaciones con las Administraciones Públicas. Entre tales derechos destacan los relativos a obtener información y orientación, a que se facilite el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de las obligaciones y a la presentación de sugerencias y quejas por retrasos o anomalías en el funcionamiento de los servicios públicos.

La mejora en la prestación de los servicios públicos tiene una especial incidencia en la administración local, por ser el primer peldaño que el ciudadano tiene para canalizar sus pretensiones, necesidades, etc. Ello implica que las administraciones locales tienen una clara obligación de mejorar y ampliar sus servicios a los ciudadanos.

Paralelamente el desarrollo de las nuevas tecnologías de la información y el gran auge que ha ido adquiriendo la sociedad digital, han hecho posible la conformación de unas plataformas tecnológicas que favorecen también el cambio de relación entre administración y administrados, así como un cambio importante en la cultura organizativa en el seno de las administraciones.

A pesar de todo, lo que es verdaderamente esencial es el cambio de actitudes y de capacidad de innovación. Solamente así se puede construir una administración pensada en el ciudadano como destinatario final, que funcione mejor y a un coste más eficiente. Concebir al ciudadano como cliente es el eje central en el que se ha basado la administración para modernizarse, pero a ello también han contribuido otras cosas coyunturales, entre ellas el cambio que se ha operado en la sociedad, y un muy importante auge de las nuevas tecnologías de la información.

Partiendo de estos derechos y con el fin de facilitar su difusión, es necesario pensar en una oficina de información y atención al ciudadano. Dada



## Andoaino Udala

bulegoa. Hiritarrari eskaini beharreko arretak duen garrantzia aintzat izanik eta oso ikuspegi zabalez arreta hori iritziz gero euren eskubideetan jarduteko, bere betebeharrak betetzeko eta herri zerbituetara iristeko Administrazioak hiritarren esku jarri behar dituen jarduera eta neurrien osotasuntzat, beharrezko gertatzen da osatzen duten jarduera eta bitarteko guztien araubidea jasoko duen arau orokor bat osatzea, oraindik garatu ez diren horiek behar bezala arautuz. Beharrezko gertatzen da hiritarren informazioa eta orientabidea funtsezko jarduera edo eginkizuntzat duten administrazio unitateen antolakuntza, jarduna edo koordinazioa arautzea, eta araubide horrek ezar dezala bere jardueraren esparru juridikoa, bere eskumenaren edukia, eginkizunen aginpidea eta haiek burutzeko garaian duten erantzukizunaren irismena.

Horrek guztiak bat dakar hiritarrekiko arreta antolatzea informazio eta arreta zerbitzuen arteko erabatekotasunean, Udalaren jarduera guztietaz informazioa emateko eginkizunean bereziki jardungo duen unitatea eratzea ekarriz, aldi berean bere gain har ditzakeelarik udaleko izapideen gaineko zaintza, jarraitze eta koordinazio lanak. Antolakuntza eredu honekin informazioaren kalitatea hobetu nahi da, baita baliabideak optimizatzea eta Udalbatzaren irudia hobetzea ere.

Hiritarrekiko artapen zerbitzuek hauexek baitiituzte helburu: herriari buruzko informazio eskakizunari erantzuna ematea, udal izapideak bideratzea eta udal zerbitzuei buruzko arrangura eta iradokizunei jaramon egitea. Zuzeneko harremana eskaintzeko gogoz, herritarrekiko arreta bulegoak ondoko zerbitzuak eskainiko ditu:

- 1.- Andoainean dagoen eta gertatzen den guztiari buruzko informazioa ematea.
- 2.- Udal zerbitzu eta jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- 3.- Herri kudeaketa eta izapideei buruzko informazioa lortzea.
- 4.- Udal izapideak kudeatzea.

Udalak pertsonak artatzerakoan beraien eskakizunak berehala konpontzea nahi du, erakunde guztiaren kostuak murriztuaz, eta, aldi berean, Administrazioaren irudi positiboago bat ematen zaie herritarrei.

la trascendencia de la atención al ciudadano y teniendo en cuenta que la misma se concibe de forma amplia como el conjunto de actividades y medidas que la Administración debe poner a disposición de los ciudadanos para el ejercicio de sus derechos, el cumplimiento de sus obligaciones y el acceso a los servicios públicos, se hace necesario la elaboración de una disposición general en la que se recoja toda la regulación de las actividades y medios que la integran regulándose aquellas que todavía no han sido desarrolladas. Resulta necesario regular la organización, el funcionamiento y coordinación de las unidades administrativas que tienen como función o actividad fundamental la información y orientación a los ciudadanos, y que establezca el marco jurídico de su actuación, el contenido de su competencia, la atribución de funciones y el alcance de su responsabilidad en el ejercicio de aquellas.

Todo ello lleva a configurar la atención al ciudadano en una forma integrada entre los servicios de información y atención, suponiendo la constitución de una unidad especializada en la función de informar sobre todas las actividades del Ayuntamiento, al mismo tiempo de puede asumir también labores de control, seguimiento y coordinación de trámites municipales. Con este modelo organizativo se pretende mejorar la calidad de la información, la optimización de los recursos y la mejora de la imagen corporativa.

Los servicios de atención al ciudadano tienen el objetivo de resolver las demandas de información sobre el pueblo, solucionar los trámites municipales y atender las quejas y las sugerencias sobre los servicios municipales. Con la voluntad de proporcionar un trato directo la oficina de atención al ciudadano ofrecerá los siguientes servicios:

- 1.- Realizar consultar sobre todo lo que hay y lo que pasa en Andoain.
- 2.- Recibir información sobre los servicios y las actividades municipales.
- 3.- Obtener información sobre gestiones y trámites públicos.
- 4.- Gestionar trámites municipales.

El Ayuntamiento quiere atender a las personas resolviendo sus demandas con inmediatez, reduciendo los costes de toda organización, además de proyectar una imagen más positiva de la Administración hacia las mismas.



## Andoaingo Udala

Helburu hori lortu ahal izateko, Andoaingo Udalak, Zerbitzu Publikoko erakundea denez gero, eta beraren helburua komunitatera eta haren bilakaeraren etengabeko aldaketetara egokitzeko, maila instituzionalean modernizatzeko Plan bat egiteko eta betetzeko konpromisoa hartu du. Plan horrek herritarrak bideratzeko eta bateratzeko elementua izatea da helburua.

Horrek guztiorrek, hausnarketa egin eta iritzi guztiak kontuan hartu eta gero, Herritarren Arretarako Zerbitzu bat sortzeko proposamena egitea eragin du.

Ondorioz, hauek dira Herritarren Arretarako Zerbitzuaren ezaugarriak:

1. Udalaren bulego bat da. Beraz, ez da soilik herritarren eskakizunak artatzeko izango, bulego horretan ahal diren arreta mota guztiak emango dira.
2. Dinamikoa izan behar da, aldakorra, une bakoitzeko eskakizunetara egokitu ahal izateko.
3. Udal egiturako zerbitzu bat izango da, eta betebeharra herritarrak artatzea izango da, merkataritza zentzuan.
4. Bertan egin daitezkeen jardueren artean tramite errazak eta errepikakorrak egongo dira, eskakizunik handienekoak.

Ezaugarri horiek (HAZ) dituen zerbitzu hau martxan jartzeak abantaila hauek izango ditu kudeaketa eta informazio funtzioak betetzerakoan:

### Herritarrentzat:

- Bakoitzaren eskakizunak bideratzea.
- Herritarrei tratu pertsonala eta indibidualizatua ematea.
- Izaera orokorreko eta normalizatu daitezkeen eskabideak bideratzea.
- Eskakizunei erantzuterakoan arintasun eta azkartasun handiagoa lortzea.
- Informazio zuzena eta benetakoa ematea eta herritarrek beren eskakizunak zentralizatuta izateko moduan bideratzea.
- Herritarrak mugiarazi beharrean lzapideak mugitu.
- Egiten diren kontsultak eta eskaerak iragaztea, dagokion sailera eskabide espezifikoak baino ez bidaltzeko, eta aurretiazko hitzorduaz.

Para la consecución de dicho objetivo, el Ayuntamiento de Andoaín, como entidad de Servicio Público, para adecuar su fin a la comunidad y a sus continuos cambios evolutivos, se ha comprometido con el diseño y ejecución de un Plan de modernización a nivel institucional, todo ello como elemento canalizador y conector con la ciudadanía.

Todo ello, tras el oportuno espacio de reflexión y el sopesar las diferentes opiniones, y tomando como referencia el modelo implantado en el Ayuntamiento de Arrigorriaga, ha llevado a proponer la creación de un Servicio de Atención Ciudadana.

En consecuencia, las características del Servicio de Atención Ciudadana son las siguientes:

- 1.- Se trata de una oficina del Ayuntamiento. Por tanto, no se limitará únicamente a la atención de las demandas ciudadanas, sino que aprovechará su presencia para prestar todas las atenciones posibles.
- 2.- Deberá ser dinámico, cambiante, para adaptarse a la demanda en cada momento.
- 3.- Estará configurado como un servicio en la estructura municipal, cuya función es atender al público con sentido comercial.
- 4.- La carta de actividades estará compuesta por trámites sencillos y repetitivos de mayor demanda.

Las ventajas que aporta la puesta en funcionamiento de un servicio de estas características en el desempeño de su doble función de gestión e información, son las siguientes:

### Para la ciudadanía:

- Canalizar las demandas personales.
- Favorecer el trato personal e individualizado con el público.
- Resolver aquellas demandas de carácter general y que pueden ser normalizadas.
- Obtener una mayor agilidad y rapidez en la atención de las demandas.
- Ofrecer información directa y veraz y canalizarla de tal manera que la ciudadanía tenga centralizadas sus demandas.
- Movimiento en los trámites en lugar de mover al ciudadano.
- Filtrar las consultas y peticiones que se planteen, enviando al Área competente sólo



## Andoingo Udala

---

- Azkenik, udalak herritarren aurrean duen irudia nabarmen hobetzea.

aquellas de carácter específico y bajo cita previa.

- Finalmente, mejorar sensiblemente la imagen del Ayuntamiento ante la ciudadanía.

### Udalarentzat:

- Material eta giza baliabideak arrazionalizatzea, antolakuntza horizontalak eragiten dituen ekonomien eraginez.
- Udala herritarren eskakizunak konpontzeko lanean dabilen zerbitzu publikoa delako irudia ematea.
- Pertsonekin harreman zuzen eta arduratsua ahalbidetzea, zerbitzu publikoaren izaerapean, etengabe hobetu ahal izateko.
- Zerbitzuko berezko "hesi-iragazki" eta "bideratzaile" kontzeptuek abantaila hauek ematen dituzte:
- Erakundeko zerbitzu guztietan publikoaren joan-etorria ekiditea, sailen barruan kontzentrazio handiagoa izateko eta kudeaketara dedikatzeko.
- Sailetan/zerbitzuetan jendea modu arrazionalen eta antolatuan hartu ahal izatea, hitzordu bidez.
- Udaleko kudeaketa eta administrazio zerbitzuetako produktibitatean hobekuntza orokorra lortzea.

### Para el Ayuntamiento:

- Racionalizar los recursos humanos y materiales, debido a las economías que de la organización horizontal se derivan.
- Aportar una imagen del Ayuntamiento de servicio público volcado en la solución de las demandas ciudadanas.
- Permitir un contacto directo y responsable con las personas, bajo un concepto de servicio público, que posibilite una disposición de mejora permanente.
- Los conceptos "barrera-filtro" y "conductor" propios del servicio, aportan ventajas como:
- Eliminar el flujo de público por los diferentes servicios de la organización, permitiendo una mayor concentración y dedicación a la gestión dentro de las áreas.
- Posibilitar la recepción del público en las áreas/servicios de manera racional y organizada a través de cita previa.
- Producir una mejora global de la productividad en los diferentes servicios de gestión y administración municipales.

### Udal langileentzat:

- Prozesuak homogeneizatzea.
- Kudeaketa denboretan irabaztea.
- Protokoloak hasieratik amaierara arte argitzea.
- Barruko lan-sarea indartzea.
- Herritarrentzako zerbitzuaren gogobetetasunean sakontzea.
- Diziplina anitzeko talde bat egituratzea.

### Para el personal municipal:

- Homogeneizar los procesos.
- Ganar en tiempos de gestión.
- Clarificar los protocolos de principio a fin.
- Fortalecer la red interna de trabajo.
- Profundizar en la satisfacción del servicio a la ciudadanía.
- Estructurar un equipo multidisciplinar.



## Andoingo Udala

### I. TITULUA – IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

#### 1. artikulua. Herritarren Arretarako Zerbitzua

Herritarren Arretarako Zerbitzua zerbitzu publikorako berariazko bokazioa duen udal zerbitzu bat da, eta bezeroa artatzeko teknika modernoak dauzka. Publikoarentzako arreta zerbitzu honetan kontzentratzen da, eta herritarrek udalari egiten dizkioten eskakizun gehienei irtenbidea emateko behar-beharrezko antolakuntza eta bitartekoak ditu.

#### 2. artikulua. Herritarren Arretarako Zerbitzuaren zereginak

Herritarren Arretarako Zerbitzuaren jarduerak ondorengo funtzioen barruan sartzen dira:

- a).-Udalari eta udalerriri buruzko informazio funtzioa.
- b).-Kudeaketa funtzioa.

#### 3. artikulua. Ordenantzaren helburua

Hauxe da Ordenantza honen helburua:

- 1.- Herritarren arreta zerbitzuari eskuordetzen zaizkion jarduera guztiak biltzea eta definitzea.
- 2.- Ebazpen Ekintzak deritzen espedienteak eta kudeaketak arautzeko prozedura arau batzuk ezartzea.
- 3.- Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko IV. Titulua –Administrazio Publikoen jarduera– betetzen dela bermatzea, eta bereziki, herritarrek Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak bermatzen direla, ondorengoak benetan ezartzen direla zehaztuta:
  - Informazioa eta orientabidea jasotzea.
  - Interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopia lor ditzakete.
  - Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabil ditzakete.
  - Udalaren partetik berariazko erantzuna jasotzea.
  - Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere.
  - Aurkeztutako agirien kopia zigilatua izan dezakete, kopia jatorrizko agiriarekin batera eramaten badute, eta jatorrizko agiri horiek berreskura ditzakete, espedientean jatorrizkoak

### TÍTULO I - DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

#### Artículo 1. Servicio de Atención Ciudadana

El Servicio de Atención Ciudadana es un servicio municipal con vocación específica de servicio público que incorpora técnicas modernas de atención a la o el cliente y en el que se concentra la atención al público, estando dotado de la organización y medios necesarios para dar solución a la mayoría de las demandas que la ciudadanía dirige al Ayuntamiento.

#### Artículo 2. Funciones del Servicio de Atención Ciudadana

Las actividades del Servicio de Atención Ciudadana se engloban en las siguientes funciones:

- a).- Función de Información del Ayuntamiento y del municipio.
- b).- Función de Gestión.

#### Artículo 3. Objeto de la ordenanza

Constituyen el objeto de esta Ordenanza:

- 1.- Recoger y definir todas las actividades que se asignan al servicio de atención al ciudadano.
- 2.- Establecer una serie de normas de procedimiento que regirán respecto a aquellos expedientes y gestiones denominados Actos Resolutorios.
- 3.- Garantizar el ejercicio del contenido de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, Título IV -De la actividad de las Administraciones Públicas-, y en particular, los derechos de la ciudadanía en sus relaciones con las Administraciones Públicas, concretando la aplicación efectiva de los siguientes:
  - A recibir información y orientación.
  - Conocer, en cualquier momento, el estado de tramitación de los expedientes en los que tenga la condición de persona interesada y obtener copias de sus documentos.
  - Utilizar las lenguas oficiales en el territorio de la Comunidad Autónoma.
  - Obtener una respuesta expresa por parte del Ayuntamiento.
  - No presentar documentos no exigidos por las normas aplicables al procedimiento o que ya se encuentren en poder de la Administración.
  - Obtener copia sellada de los documentos que presente, aportándola junto con los originales, así como a la devolución de éstos, siempre que



## Andoingo Udala

---

jaso behar ez badira behintzat.

- Tramiteetako pertsona arduradunen identitatea ezagut dezakete, baita espedientea ebazteko epeak ere.
- Alegazioak eta agiriak aurkez ditzakete prozeduraren edozein alditan, beti ere, entzunaldiaren izapidea izan aurretik.
- Administrazio erregistroetara eta artxiboetara jo dezakete, interes publikoko arrazoiak nagusitzen direnean edo hirugarren pertsonen eskubideak kaltetzen direnean izan ezik.

### 4. artikulua. Antolakuntza printzipioa

Zerbitzu honen ezaugarria den antolakuntza printzipioa oinarrizko bi elementutan oinarritzen da:

Herritarrek udalarekiko dituzten ohiko eskakizunen arreta zerbitzu bakar batean kontzentratzen da.

- Lanpostuak polibalenteak izango dira.

### 5. artikulua. Sail funtzionalekiko harremana

Herritarren Arretarako Zerbitzua udal egituraren barruan dago, udaleko sail funtzionalen zerbitzura, herritarrei arreta pertsonalizatua emateko helburu nagusi hori betetzeko asmoarekin.

Udaleko sail funtzionalak dira, funtzioz dagozkien alorrei dagokienez, herritarren arreta zerbitzuak garatzen dituen jarduera guztien azken erantzuleak, zerbitzu berri honi agintzen zaizkion eta beren erantzukizunpekoak direnak izan ezik.

Herritarren arreta zerbitzua udaleko sail funtzionalekin elkarlanean arituko da, herritarren informazioa eta arreta behar duten ekimen eta jarduerak beraren instalazioetan antolatze eta egiteko, hala nola, informazio orokorra, errolda berritatzeko, hirigintza planak, bekak eta laguntzak, matrikulazioak, etab.

Sail bakoitzak eta Herritarren arreta zerbitzuak elkarrekiko harremana arautuko duen agiri bat sinatuko dute, eta barne hitzarmen figura hartuko du agiri horrek.

### 6. artikulua. Harremanetarako barne hitzarmena

Saila-Herritarren Arreta Zerbitzua harremana arautzeko barne hitzarmenak dagokion udal sailari Herritarren arreta zerbitzuak egiten dion zerbitzua behar den bezala egiteko behar-beharrezko alderdi guztiak jasoko ditu.

no deban figurar en el expediente.

- Conocer la identidad de las personas responsables de los trámites, así como los plazos para la resolución del expediente.
- Formular alegaciones y aportar documentos en cualquier fase del procedimiento anterior al trámite de audiencia.
- Acceder a los registros y archivos administrativos, salvo cuando prevalezcan razones de interés público o se lesionen derechos de terceras personas.

### Artículo 4. Principio organizativo

El principio organizativo que caracteriza este servicio se basa en dos elementos fundamentales:

- Se concentran en un único servicio la atención de las demandas más usuales de la ciudadanía para con el Ayuntamiento.
- Se configuran sus puestos de trabajo con carácter polivalente.

### Artículo 5. Relación con las Áreas funcionales

El Servicio de Atención Ciudadana se integra en la estructura municipal, al servicio de las diferentes Áreas funcionales del Ayuntamiento, de acuerdo a la consecución de su objetivo principal de atención personalizada al público.

Las Áreas funcionales municipales son las responsables últimas de todas las actuaciones que, respecto a las materias que les corresponden funcionalmente, desarrolle el servicio de atención al ciudadano, independientemente de aquellas encomendadas a este nuevo servicio y que sean de responsabilidad propia.

El servicio de atención al ciudadano colaborará con las diferentes Áreas funcionales del Ayuntamiento mediante la organización y prestación, en sus instalaciones, de aquellas iniciativas y actividades que requieran de la información y atención de la población en general, tales como información general, renovaciones padronales, planes urbanísticos, becas y ayudas, matriculaciones, etc.

Se firmará por parte del Área y del Servicio de Atención al Ciudadano un documento regulador de su relación mutua que adoptará la figura de Convenio interno.

### Artículo 6. Convenio interno de relación

El Convenio interno regulador de la relación mutua Área – Servicio de Atención al ciudadano. contemplará todos aquellos aspectos que contribuyan al correcto desarrollo del servicio que el Servicio de Atención al



## Andoingo Udala

Hitzarmenak, gutxienez, eduki hau izango du:

- Sailaren tramite eskuliburua.
- Sailak Herritarren Arreta zerbitzuari eman beharreko informazioa, aldizkakotasuna eta bidaltzeko bidea.
- Jarduera irizpideak.
- Prozedurei buruzko aldizkako ebaluazioa.

### 6.1 Saileko informazioa:

Herritarren Arreta Zerbitzuak duen informazioa benetakoa eta gaurkotua dela bermatzeko, ezinbestekoa da informazioa bidaltzeko egitura arin, argi eta erabilgarri bat diseinatzea, eta horretarako ezinbestekoa da hurrengo hau argitzea:

- 1.- Sailaren eta Herritarren Arreta Zerbitzuaren arteko bitartekaria izango den pertsona bat ezartzea.
- 2.- Herritarren Arreta Zerbitzuko langileei laguntzeko konpromiso bat ezartzea.
- 3.- Herritarren Arreta Zerbitzuari jakinarazitako aldaketa edo ekintza berehala mantentzeko konpromisoa ezartzea, hauek:
  - Berriak, gertaerak edo jazoerak.
  - Datak, eta horien epeak.
  - Herritarrek tramiterako bete beharreko baldintzak.
  - Gertaeraren edo jazoeraren tramitazio egoera.
  - Gertaeraren edo jazoeraren dokumentazio grafikoa.
- 4.- Herritarren Arretarako Zerbitzuarekin erabateko inplikazioa ezartzea, udaleko bitartekari bateratu gisa.
- 5.- Sinatutako barne hitzarmen hau behar bezala betetzeko konpromisoa.

Herritarren Arreta Zerbitzuak, era berean, konpromiso hauek hartzen ditu sail bakoitzarekin:

- 1.- Sail funtzional bakoitzeko eskumena den dokumentazioa zerbitzuan erregistratutako egun berean bidaltzea, lanaldia amaitzerakoan, edo hurrengo eguneko lehen orduan.
- 2.- Sail bakoitzak emandako informazioa profesionaltasun osoz ematea, arretan eta informazioan zerbitzua eta kalitatea betetzeko ardura osoz.
- 3.- Pertsonekin izango duen zuzeneko tratua bidez herritarrek sail bakoitzari buruz egindako ekarpenak edo iradokizunak jakinaraztea dagokion sailari.

Ciudadano presta al Área municipal concreta.

El convenio tendrá, cuando menos, el siguiente contenido:

- El Manual de Trámites del área.
- Información del Área al Servicio de Atención al Ciudadano, periodicidad y canal de envío.
- Criterios de actuación.
- Evaluación periódica de procedimientos.

### 6.1 Información del área:

Para asegurar que la información de que dispone el Servicio de Atención al Ciudadano es veraz y actualizada, es imprescindible diseñar una estructura de envío de información, ágil, clara y útil, para lo cual se hace necesario clarificar lo siguiente:

- 1.- Establecer una persona que ejerza como interlocutora de enlace entre área y Servicio de Atención al Ciudadano
- 2.- Establecer un compromiso de apoyo al personal del Servicio de Atención al Ciudadano.
- 3.- Establecer un compromiso de mantener inmediatamente el cambio o acción informado al Servicio de Atención al Ciudadano de:
  - Noticias, hechos o acontecimientos.
  - Fechas, plazos de los mismos.
  - Requisitos para el trámite por parte de la o el ciudadano.
  - Estado de tramitación del hecho o acontecimiento.
  - Documentación gráfica del hecho o acontecimiento.
- 4.- Establecer una implicación total con el Servicio de Atención Ciudadana como interlocutor unificado del Ayuntamiento.
- 5.- Compromiso del correcto cumplimiento de este Convenio Interno firmado.

El Servicio de Atención al Ciudadano., así mismo, se compromete con cada Área a:

- 1.- Remitir la documentación, competencia de cada área funcional, el mismo día de su registro en el Servicio, al finalizar la jornada, o a primera hora del día siguiente.
- 2.- Dar la información suministrada por cada área con total profesionalidad y celo en el cumplimiento del servicio y de la calidad en la atención e información.
- 3.- Mantener informada periódicamente a cada área de las aportaciones que le pudieran llegar o sugerir por parte de la ciudadanía, fruto de ese trato directo con las personas.





## Andoingo Udala

### 6.2. Prozeduren aldiroko ebaluazioa.

Tramiteetarako eskuliburua kudeaketarako tresna bat da. Tresna hori malgua izan behar da, eta komunitatearen zerbitzurako ebaluazio legez sor litekeen beharrianetara eta eskakizunetara egokitzeko modukoa.

Garrantzitsua da, beraz, elementu bizi eta praktikoa izatea, indarreko legeei eta gizarte uneari lotutakoa.

Urtean behin batzar orokor bat egingo da, baina, unean uneko beharrian puntualen mende egongo da, eta berehala ezarri beharrekoak izango dira.

### 7. artikulua. Herritarren arreta zerbitzuaren jarduerari buruzko informazioa.

Aldian-aldian Herritarren Arreta Zerbitzuaren eskumeneko jarduerari buruzko estatistikak egingo dira, ondorengoak hobeto ezagutzeko: herritarrek aurkeztutako eskabideak, kexak eta iradokizunak, matxura abisuak, ebazpen ekintzak, eta egin diren kontsulta kopurua eta motak.

Aldian-aldian, hala badagokio, Herritarren Arreta Zerbitzua-Saila harremanean izandako arazoei buruzko txosten bat egingo da.

### 8. artikulua. Saileko erreferenteak

Herritarren Arreta Zerbitzuaren eta udaleko sail funtzionalen arteko koordinazio egokia bermatzeko, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko, saileko erreferente bat egongo da, eta figura horrek funtzio hauek izango ditu:

- A).- Herritarren Arreta Zerbitzuaren eta dagokion saileko bitartekaria edo zubia izango da, eta zerbitzuko langileei babesa emango die eskatzen zaionean.
- B).- Herritarren Arreta Zerbitzurako pertsona arduradunari saileko jarduera guztien berri ematea, herritarrei dagokienez eragina badauka; hala nola, prozeduren, kexen eta erreklamazioen tramitazio egoerari buruz, iragarkiei, kanpainei eta, oro har, saileko jarduera guztiei buruz.
- C).- Herritarrek Harreta Zerbitzuan aurkeztutako eskabideei erantzuteko beraren saileko beharrezko jarduera guztiak zaintzea eta koordinatzea.
- D).- Sinatutako barne hitzarmena behar den bezala betetzen dela kontrolatzea.

### 9. artikulua. Hasteko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egindako eskabideetan, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko 70. artikuluan jasotakoez gain (interesdunaren izen-abizenak eta,

### 6.2. Evaluación periódica de Procedimientos.

El Manual de Trámites es una herramienta de gestión que como tal ha de ser flexible, y adaptable a la necesidad y demanda que surja como evaluación del servicio a la comunidad.

Es importante que sea, por tanto, un elemento vivo y práctico, sujeto a las leyes vigentes y al momento social.

Se establece una reunión con carácter general anual, pero siempre sometidos a las necesidades puntuales de cambio que serán de aplicación inmediata.

### Artículo 7. Información sobre la actividad del Servicio de Atención al Ciudadano

Periódicamente se confeccionarán estadísticas en relación con las actividades atribuidas al Servicio de Atención al Ciudadano para un mayor conocimiento de las demandas ciudadanas, quejas y sugerencias presentadas, avisos de averías, actos de resolución, y del número y tipo de consultas que se han realizado.

Periódicamente se realizará un informe sobre la problemática, en su caso, existente en la relación Servicio de Atención al Ciudadano. - Área.

### Artículo 8. Referentes de Área

Para garantizar la adecuada coordinación del Servicio de Atención al Ciudadano con las Áreas funcionales del Ayuntamiento, al objeto de prestar el mejor servicio a la ciudadanía, existirá la figura de la o el Referente de Área que tendrá como funciones las siguientes:

- A).- Interlocución o puente entre el Servicio de Atención al Ciudadano y el Área correspondiente, ofreciendo apoyo al personal del Servicio cuando sea requerido.
- B).- Información a la persona responsable del Servicio de Atención al Ciudadano sobre todas las actuaciones del Área que tengan repercusión de cara a la ciudadanía, tales como el estado de tramitación de los procedimientos, quejas y reclamaciones, anuncios, campañas y, en general, de cuantas actividades desarrolle el Área.
- C).- Velar y coordinar las actuaciones necesarias de respuesta dentro de su Área hacia las demandas presentadas en el Servicio de Atención al Ciudadano por parte de la población.
- D).- Controlar el correcto cumplimiento del contenido del Convenio interno firmado.

### Artículo 9. Documentación a aportar junto a la solicitud de iniciación

Las solicitudes que se formulen deberán contener, además de lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley 30/1992 de Procedimiento Administrativo Común





## Andoingo Udala

ordezkaria badu, bere ordezkariarenak, baita jakinarazpenak jasotzeko aukeratutako bidea eta lekua ere; egitateak, arrazoiak eta eskaria, argi eta garbi adierazia; lekua eta eguna; eskabide-egilearen izenpea edo benetan bere borondatea dela erakusteko edozein eratako egiaztapena; Administrazioako zein organo, erakunde edo unitateri bidaltzen zaion eskabidea), ezarri beharreko prozeduraren eskuliburuak aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira.

### 10. artikulua. Dokumentazioa artxibatzea

Sail funtzional bakoitzaren eskumeneko espedientei eta kudeaketei buruz Herritarren Arretarako Zerbitzuan sortutako dokumentazioa artxibatzekeo ardura sail bakoitzarena izango da eta, beraz, Herritarren Arreta Zerbitzuak dokumentazio hori bidaliko dio sail bakoitzari kasu bakoitzerako ezarritako aldizkakotasunaren arabera.

(nombre y apellidos del interesado y, en su caso de la persona que le represente, así como la identificación del medio preferente o del lugar que se señale a efectos de notificaciones; hechos, razones y petición en que se concrete, con toda claridad, la solicitud; lugar y fecha; firma del solicitante o acreditación de la autenticidad de su voluntad expresada por cualquier medio; órgano, centro o unidad administrativa a la que se dirige), la documentación a que haga referencia el Manual de procedimiento que resulte de aplicación.

### Artículo 10. Archivo de documentación

La responsabilidad del archivo de la documentación generada desde el Servicio de Atención Ciudadana en relación a expedientes y gestiones cuya competencia esté atribuida a las diferentes Áreas funcionales, será de éstas, por lo que el Servicio de Atención al Ciudadano les remitirá dicha documentación con la periodicidad que en cada caso se establezca.

## II. TITULUA – INFORMAZIO FUNTZIOA

### 11. artikulua. Informazio funtzioa

Herritarren Arreta Zerbitzua pertsona administratuen eta administrazioaren arteko lotura elementua izango da eta, ondorioz, udal bizimoduari dagokionez, bera izango da informazioarako eta gerturatzeko bitartekoa, baita komunitateko gizarte bizimodurako eta beste administrazio eta zerbitzu batzuekiko harremanetarako ere. Azken finean, administrazioaren informazioa bitarteko egokia da herritarrek udalaren jardueraren berri izan dezaten eta ondasun eta zerbitzu publikoak erabil ditzaten.

Oinarri-oinarrian, hauek izango dira informazio funtzioak:

- Pertsonak hartzea eta artatzea, beraien bisitaren lehenengo unean behar dituzten orientabidea eta laguntza emateko eta, bereziki, egoitzak eta funtzionarioak non dauden esateko.
- Orientabidea eta informazioa, praktikotasunari begira behar diren argibideak eta laguntzak emateko prozedurei, tramiteei, proiektuetarako eskakizunei eta dokumentazioari, egin nahi diren jardueri edo eskabideei buruz, edo zerbitzu publiko bat erabili ahal izateko edo prestazio baten onuradun izateko.
- Prozeduren tramitazio egoerari buruzko informazioa ematea, edo udal espedienteetan eta dokumentuetan jendaurreko informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko eskubidea erabili ahal izatea.

## TÍTULO II - FUNCIÓN DE INFORMACIÓN

### Artículo 11. Función de Información

El Servicio de Atención al Ciudadano como elemento de conexión entre personas administradas y administración, hará de enlace informativo y de acercamiento en lo relativo a la vida municipal, vida social de la comunidad y su relación con otras administraciones y servicios. En definitiva, la información administrativa es un cauce adecuado a través del cual la población puede acceder al conocimiento de la actividad municipal y a la utilización de los bienes y servicios públicos.

Básicamente las funciones de información serán las siguientes:

- De recepción y acogida a las personas, al objeto de facilitarles la orientación y ayuda que precisen en el momento inicial de su visita, y, en particular, la relativa a la localización de dependencias y funcionariado.
- De orientación e información, cuya finalidad es la de ofrecer las aclaraciones y ayudas de índole práctica que se precisen, sobre procedimientos, trámites, requisitos y documentación para los proyectos, actuaciones o solicitudes que se propongan realizar, o para acceder al disfrute de un servicio público o beneficiarse de una prestación.
- De información del estado de tramitación de los procedimientos y de materialización del derecho de acceso o de participación en información pública a expedientes y documentos municipales.



## Andoingo Udala

### 12. artikulua. Informazioa zabaltzeko bitartekoak

Herritarrei behar duten informazioa emateko, une bakoitzerako egokiak diren zabalkunde bitartekoak erabiliko dira, eta informazioa urrutitik lortzea ahalbidetzen direnak sustatuko dira, hala nola, argitalpenak, telefono-sistemak edo aurrerabide teknologikoei ahalmentzen duten beste edozein komunikazio bide.

Zehatz-mehatz esateko, Herritarren Arreta Zerbitzuak elkarreragin horretarako oinarrizko bide hauek ezarriko ditu:

- 1.- Aurrez aurreko arreta Herritarren Arreta Zerbitzuan bertan.
- 2.- Telefono bidezko arreta.
- 3.- Udaleko web gunea.
- 4.- Informazio panelak udalerrian.
- 5.- Herritarren Arretarako Zerbitzuko iragarki ohola.
- 6.- Hileroko eta aldian aldiko argitalpenak. Aldizkariak, bandoak.
- 7.- Bluetooth teknologia, SMS eta beste batzuk.

### 13. artikulua. Iragarki ohola

Prozedurak herritarrengan oihartzun orokorra daukanean, udaleko iragarki oholean argitaratzeaz gain, Herritarren Arretarako Zerbitzutik zabaltzea ere ahalbidetuko da.

### Artículo 12. Medios de difusión de la información

Al objeto de hacer llegar a la población la información que precisa, se utilizarán los medios de difusión que en cada circunstancia resulten adecuados, potenciando aquellos que posibiliten la información a distancia, ya se trate de publicaciones, sistemas telefónicos o cualquier otra forma de comunicación que los avances tecnológicos permitan.

En concreto los canales básicos que establece el Servicio de Atención al Ciudadano para esa interacción informativa son los siguientes:

- 1.- Atención personalizada en el Servicio de Atención al Ciudadano.
- 2.- Atención vía telefónica.
- 3.- Pagina web municipal.
- 4.- Paneles informativos en el municipio.
- 5.- Tablón de anuncios del Servicio de Atención al Ciudadano.
- 6.- Publicaciones mensuales y puntuales. Boletines, bandos.
- 7.- Tecnología Bluetooth, SMS y otros.

### Artículo 13. Tablón de anuncios

Cuando el procedimiento tenga repercusión en la ciudadanía en general, además de la publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, se posibilitará su difusión desde el Servicio de Atención Ciudadana.

## I KAPITULUA.- INFORMAZIO OROKORRA

### 14. artikulua. Edukia

Ondorengoei buruzko informazio administratiboa da:

- A).- Administrazio erakundeak eta unitateak identifikatzea, baita haien helburuak, eskumenak, egitura funtzionamendua eta kokalekua ere.
- B).- Herritarrek egin nahi dituzten proiektuei, jardueri edo eskabideei xedapenak ezarritako betekizun juridikoei edo teknikoei buruzkoa.
- C).- Prozeduren tramitazioari, zerbitzu publikoei eta tramitazioei buruzkoa, baita administrazio publikoekiko harremanetan hark ezagutu behar dituen datuei buruzkoa ere. Hori guztiori, herritarrentzat interes handienekotzat hartzen diren udalaz gaindiko zerbitzuei eta tramiteei buruzkoarekin osatuta.
- D).- Prozeduraren ezagutza, edo jendaurreko informazioan zehazten den partearena, eta pertsona interesatuek nahi dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte.
- E).- Espediente baten barruan administrazio artxiboetan dauden erregistroetara eta

## CAPÍTULO I.- INFORMACIÓN GENERAL

### Artículo 14. Contenido

Es la información administrativa relativa a:

- A).- La identificación, fines, competencia, estructura, funcionamiento y localización de organismos y unidades administrativas.
- B).- La referida a los requisitos jurídicos o técnicos que las disposiciones impongan a los proyectos, actuaciones o solicitudes que la ciudadanía se proponga realizar.
- C).- La referente a la tramitación de procedimientos, a los servicios públicos y prestaciones, así como a cualesquiera otros datos que aquella tenga necesidad de conocer en sus relaciones con las Administraciones públicas, complementada con la relativa a servicios y trámites extramunicipales que se consideren de mayor interés para la ciudadanía.
- D).- El conocimiento del procedimiento, o parte del mismo que se determine, en información pública, pudiendo realizar las personas interesadas, las alegaciones que consideren oportunas.
- E).- De acceso a los Registros y a los documentos que, formando parte de un expediente, obren en los



## Andoingo Udala

dokumentuetara jo ahal izatea, adierazpidea (grafikoa, soinua edo irudi bidezkoa) edo euskarri materiala edozein dela ere, baldin eta espediente horiek eskaera egiten den datan amaituta badaude, eta erregistro horiek dagoeneko ez badira operatiboak data horretan.

### 15. artikulua. Informazioa ematea

Aurreko artikuluko A, B, C eta D ataletan jasotako informazioa nahitaez emango zaie herritarrei, horretarako inolako kreditaziorik eskatu beharrik gabe.

### 16. artikulua. Jendaurreko informazioa

Jendaurreko informazioa ebazten duen iragarkian informazio hori non erakutsiko den eta alegazioak aurkezteko dagoen epea zehaztuko dira. Epe hori ezin izango da, kasu bakar batean ere, hamabost egunetik beherakoa izan.

Jendaurreko informazioa erakusteko horretarako ezarritako egoitzan prozedura, prozeduraren parte bat edo dokumentua egongo dira ikusgai, baina erakusten den informazioa ezin izango da egoitza horretatik atera eta ez da dokumentuen erreproduktzioerik emango.

Jendaurrean erakutsi ahal izateko jatorrizko dokumentuaren edo prozeduraren kopia oso eta konpultatu bat egingo da, eta kopia hori izango da erakusgai jarriko dena.

### 17. artikulua. Administrazioerregistroetara jotzea

14. artikuluko E atalean ezarritako erregistro administratiboetara jotzeko idatziz eskatu beharko da. Eskabide hori indibidualizatua izango da, eta zein dokumentu kontsultatu nahi den zehaztu beharko da, eta ezin izango da gai bati edo gai multzo bati buruzko eskabide generikorik egin, aukerabidezko izaeraz kontuan hartzeko ez bada.

Muga hauek izango ditu:

- Pertsonen intimitateari buruzko datuak dituzten dokumentuak pertsona horiek baino ezin izango dituzte kontsultatu, denbora igaro delako iraugitako espedienteetan jasotakoak ez bada, prozedurek ezarritako gehienezko epeen arabera, eta ezin bada haietatik eragin nabarmenik sortu.
- Zuzenbide aplikazioko prozeduretan izaera nominatiboko dokumentuetara jotzea.
- Prozedura erkideko legediak edo izaera sektorialeko legediak berariaz ezarritako espedienteetarako eta haietako dokumentuetarako sarbidea.

archivos administrativos, cualquiera que sea la forma de expresión, gráfica, sonora o en imagen o el tipo de soporte material en que figuren, siempre que tales expedientes correspondan a procedimientos terminados en la fecha de solicitud y tales registros no sean ya operativos en la referida fecha.

### Artículo 15. Realización de la información

